

EUSKERAZALEAK

Bizkaia'k bizlaieraz, Gipuzkoa'k gipuzkeraz, Lapurdi'k lapurdera'z... errialde bakoitzak bera-
ren euskalkiz eta eraz itz egiten dogun euskerari
odola edanik, azur-muiñak jan daroatsazan kapar
iguingarriak generatu jakoz, amar urtez onantza,
gure izkuntzari.

Etorriko diran amar urteetan oraingo au lako
zaputx-aldi bat eta... Jaungoikoa lagun !

* * *

Ona emen kaparrak eta makarrak:

«Herrixkaktako hauzak beherat, ziutate eta
kapitaletan poblazio densitatea gorakada aloka-
tuan ».

«Despidatzaren kontramanifestamena organi-
zatzeko entrepresaren lokaletan asanblatu ziren».

«Pisu zentrokoen deklarapen fatsuak, mugia-
zi zien kontrakolpeatzera».

«Identitatu gaberik inor pertsona ez masakratze-
ko, ez persegitzeko, ez detentzeko. Asanblada
pleno bateten tratatu zuten akordio hori».

«Estatuto propioaren deretxo errealetan exklu-
siboa herriak du, etxeko kausa printzipaletan par-
taide izan eta parte artzeko».

«Positiboki dakigu ez duela libertari, edota
anarkistazko edozein kalifikatibo teorikoki eta
praktikoki errefusatuko».

* * *

Nire aldetik orain : Gaur egungo euskalerdera
ala erdeleuskara honhen barrih belahunhaldi ba-
rriek jakin hahal dagien, hantxuras petxuharte
hahundidun honbrek herohe hiskribularirik ba-
genduh, mas harriba hucusih ber hegin duzuhezan
lakoh palabras dah frases ganbareha bete-beterik
dot horahincliho.

LANDAJUELA'tar A'k

ZER DA

—Erromesa? Santutegirik santutegi, santuen maitemiñez dabillen gizona.

—Uzta? Lurrak urtean edo aldi baten emoten dauana.

—Lorratza? Norbait egon edo dan tokian izten dan ezaupidea.

Eiza? Basa-piztiak arrapatzeko, gizonak egiten dauan lana, kazari-lana.

Abeltzaiña? Ganadu edo abere aundien zaintzaillea.

—Andapara? Errotetara doan erreka ura gelditzen dan tokia. Erdel-berbea.

—Pairatu? Nekeak artu edo artu-azo.

Gomutapena? Zerbait edo norbait gomutara, gogora, ekarteko alegiña. Oroipena.

—Jauretxea? Jaunen etxea. Palazioa.

—Erakundea? Gizarte-lan bat egiteko sortzen dan talde egokitua. Estruktura.

—Aztergarria? Onartu orduko zelakoa dan barrutik ikusi leiken gauzea.

—Oporra? Zergaitik edo agaitik lanik egiten ez dan aldia : Gaur euria da eta baserri-
tarrak oporra dauke.

Kaparra? Aramu-antzeko pizti txiki aginkalaria.

Makarra? Argala, idargea.